EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
Erakunde Autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo GOBIERNO VASCO

# BIZITZA PROIEKTUA

**NAHIKO! 5-6**

**2** UNITATE DIDAKTIKOA

## IKASLEAREN KOADERNOA (1/2)

## 1 BIZITZAREN LOTERIA

"Bizitzaren Loteria" jolasarekin jolastu zarenean, bizitzak, bere lau esparruetan, gauza onak eta txarrak ematen dizkigula ikusi duzu. Aurki itzazu horrelako hamar beheko hizki saldan.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | N | F | O | R | M | E | A | M |
| O | S | A | S | U | N | A | N | A |
| Z | E | D | N | I | N | A | K | I |
| K | M | I | O | P | I | A | R | T |
| A | L | M | A | L | I | M | A | A |
| N | E | E | L | A | O | O | K | S |
| U | G | N | O | N | B | N | I | U |
| G | E | A | K | A | P | A | S | N |
| A | A | N | S | O | Z | N | U | A |
| L | K | A | E | X | T | E | M | N |

| NI NEU | FAMILIA |
|---|---|
| | |
| **LANA** | **GIZARTEA** |
| | |

**IZENA**

# 2 BIZITZAK EMAN DIDANA

Idatz ezazu bizitzaren loteria kartoi honetan, zuri tokatu zaizkizun gauza onak eta txarrak bizitzaren lau arloetan.

| | | | |
|---|---|---|---|
|  | | | |
| | | | |
| | |  | |
| |  | | |

## ZORIONEKOA AL ZARA? ZERGATIK?

Egin gurutze bat dagokizun lekuan.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| OSO TXARRA | | | | | | | | | OSO ONA |

# 3 NIK AUKERATU ETA EGIN DUDANA

Bizitzan tokatzen zaizkigun gauza batzuk bultzatu egiten ditugu eta beste batzuk alde batera uzten ditugu. Eta tokatu ez zaizkigun beste asko guk bilatu eta lortzen ditugu. Suertatu zaigun material batzuekin eta guk lortutako beste askorekin, bakoitzak gure autorretratoa, gure proiektua egiten ari gara. Honez gero, urte hauetan, erabaki asko hartu dituzu, gauza asko ikasi dituzu, zure bidea egiten hasi zara: zure zaletasunak dituzu, jende aurrean egoteko jarrerak, etxeko gauzak eta lanak, lagunak eta koadrila, liburutegiko bazkide zara edo dantza taldekidea... Idatzi hemen, ez bizitzaren loterian tokatu zaizkuzunak, baizik eta zuk zeuk aukeratu, ikasi eta lortu dituzunak.

| | |
|---|---|
| **NI NEU**<br><br>Zaletasunak, ohiturak... | **FAMI-LIA**<br><br>Zure gela, lan banaketa, egon diren aldaketak, ohiturak... |
| **LANA**<br><br>Eskolan eta eskolatik kanpo ikasitakoak. | **GIZAR-TEA**<br><br>Parte hartzen duzu talde, elkarte, ekintza... |

**“BIZITZAREN JOLASA”-EAN ATENTZIOA DEITZU DIZUTEN ARLO BAKOITZEKO BI ESALDI IDATZ ITZAZU, BAT EGIA DENA ETA BESTE BAT GEZURRA DENA.**

| | | | |
|---|---|---|---|
| EGIA | EGIA | EGIA | EGIA |
| GEZURRA | GEZURRA | GEZURRA | GEZURRA |

# 4 ALDATZEKO ESKUBIDEA

Zure argazkiak bilatu eta hemen itsatsi. Zer aldatu da adin bakoitzean bizitzaren lau esparruetan?

**3 URTE**

NI NEU

FAMILIA

GIZARTEA

LANA

**6 URTE**

NI NEU

FAMILIA

GIZARTEA

LANA

**9 URTE**

NI NEU

FAMILIA

GIZARTEA

LANA

**DENOK ALDATZEN GARA, DENOK DUGU ALDATZEKO ESKUBIDEA.**

JARRAIPENA DU... 5 6 7 8

NAHIKO! 5-6

# BIZITZA PROIEKTUA

2 UNITATE DIDAKTIKOA

## IKASLEAREN KOADERNOA (2/2)

## 5 NAIZENA ETA IZAN NAHI DUDANA

Egungo bakoitzaren proiektuak bi osagarri ditu: orain garena (izan garena barne dagoelarik) eta izan nahi duguna (ikasi, aldatu, probatu, egin, bizi... izan nahi duguna). Idatzi aurrerago aldatuko duzun zerbait zure bizitzaren arlo bakoitzean.

| NOLAKOA NAHIZ GAUR EGUN | NOLAKOA IZAN NAHI DUT AURRERAGO |
|---|---|
| NI NEU | |
| FAMILIA | |
| GIZARTEA | |
| LANA | |

IZENA

# 6 NORK BERE BIDEA

Bizitza proiektua norberak egin behar du eta norberarena da. Ez dago eredu bat guztiontzat. Ez daude bi berdinak. Norberak berea egin behar du. Horretarako eskubidea du, eta errespetatu egin behar zaio, denok eskubide, aukera eta erantzunkizun berdinak ditugulako. Horregatik, ezin du inork beste batena egin: ez gurasoek, ez senarrak, ez emazteak, ez lagunek... Horregatik ezin da indarrez inor behartu.




**EZAGUTZEN DITUZUN BI PERTSONA HELDUEN ARGAZKIA ERDIAN ITSATSI ETA OSA ITZAZU BEREN BIZITZEN LAU ESPARRU EDO ARLOAK. NORK DU BIZITZA OREKATUAGOA? PROIEKTU ETA PERTSONA OSOA IZAN DAITEKE LAU ARLO HAUETAN BIZI GABE? ADIBIDEZ, SOILIK BAT LANDUZ?**



# 7 GIZA ESKUBIDEEN PROPOSAMENA

Goiko hitzak erabiliz, bete itzazu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak dituen hutsuneak.

gizarte-segurantza
berdinak
aldatzeko eskubidea
dohainekoa
eskubide berberak
haurrek
lansari berbera
tratu txar

**5. ATALA**
**Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo .........................................., anker eta lotsarazlerik eman ere.**

**7. ATALA**
**Gizon-emakume guztiak ..................................... dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babesa izateko eskubidea.**

**16. ATALA**
**Gizonek eta emakumeek, ezkontadinetik aurrera, ezkontzeko eta familia eratzeko eskubidea dute; eta, ezkontzari dagokionez, .......................................................................................... dituzte bai ezkonduta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.**

**25. ATALA**
**Amek eta ...................... laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.**

**15. ATALA**
**Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna ............................................................................ ukatu ere.**

**22. ATALA**
**Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, ...................................................... izateko eskubidea.**

**23. ATALA**
**Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lanbaldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa. Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik ............................................................................................................ jasotzeko eskubidea.**

**26. ATALA**
**Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza ............................. izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da. Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko.**

Testu osoa: www.unhchr.ch/udhr/lang/bsq.htm

# 8 NIRE PROIEKTUA: NI 15 URTE BARRU

Imajina ezazu zure bizimodua hamabost urte barru. Nola biziko zara? Zein da, gaur egun, zure proiektua? Bizitzaren lau arloak kontutan izan itzazu. Egin ezazu proiektu orekatu, oso eta autonomoa. Marraztu erdian 15 urte barruko zure autorretratua.

